

## Jose Martin Bustinza "Tubi" hamahirugarren aldiz txapeldun lasto botaten

14. orrialdea

## Alex Txikon K2ra igoten saiatuko da

Txikonek K2 gailurra egiteko saiakerea egingo dau eta lortu ezker, neguan K2a igoten lehen alpinista izango da. Urtailaren 2an urten-go da Karakorum mendilerrotantza eta gailurra egiten Pakistan aldetik saiatuko da, 2019ko martira arte iraungo dauan proiektuan. Kanpin denda ipini beharrean igluak eregiko dabez. 14. orrialdea



## Amaia Alday Emakume Master Cupeko txapeldun Promozio mailan

15. orrialdea

# begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

# 308

2018ko abenduaren 18a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Jarduera kultural ugari urte amaieran

Gabonen inguruan, hau da, urteko atzen hamabostaldian eta hurrengo urteko lehenengo egunetan, Arratia, Ubide eta Zeberion sasoi honegaz lotutako tradizioak edo-eta aisialdia betetako hainbat kultura jarduera antolatuten ditue udalak eta alkarteak.

**A**urten be, eskualdeko herri guztietan beteko da umeak hain gustuko daberen Olenzeroren tradizioa. Gabonetako kontzertuak, umeentzako parkeak, antzerkia, jaialdi solidarioak eta urteko atzen eguneko lasterketak, sasoi hau familian eta lagunaren artean ondo pasetan lagunduko dabe. Horreen artean, Gontzal Mendibilen *Gau magikoa: Kai, Mai, Koa* musikala egongo da. Igorreko Kultur Etxean izango da, abenduaren 21ean. 10., 12. eta 13. orrialdeak



Gontzal Mendibilen *Gau magikoa: Kai, Mai, Koa* ikuskizuna Bilboko Arriagan estrenau zan.

### ARTEA

## Basogintza moduak aldatuteko momentua heldu da

**K**eko Alonso biologoaren ustez, pinuak emon ditu bere urterik onenak eta zerrenda marroiaren gaixotasunak eredu aldatzeko momentua heldu dala agirian ipini baino ez dau egin. Bere ustez, naturearen aldeko basogintzea errentagarria izan daiteke eta lur egonkorrago eta emonkorragoak sortzean ditu. Hori adierazo eban, Artean emondako *Basogintza Bizkaiaren. Eta orain zer?* izeneko berbaldian. 5. orrialdea

### ARRATIA

## Sendo Athlete Care proiektuak irabazi dau Enpresa-Ideien Lehiaketea

Gorka Goikoetxea Urkiaga eta Hodei Letek irabazi dabe lehiaketea, hiru dimensioetako inpresoreagaz egindako ferulak egiteko proiektuagaz. Bigarren saria Xabier Fuenteren Ogi desbardinak izeneko proiektuarentzat izan da. Aurten 9 proiektu aurkeztu dira lehiaketara. Lehiaketea abiatuta egoanean prozesua aldatu egin zan, proiektuak aurkezteko oinarrietan agertzen ez ziran baldintzak gehituta. Honek partaide batzuen kejak ekarri ditu. 8. orrialdea

### LEMOA

## Kale nagusi bat eta herriko zonaldeak espaloiz eta bidegorriz lotzea proposatuten dabe HAPON generoa txertatzeko

Herritarrakaz diagnostikoa eta hainbat lan saio egin ostean, Eider Ayerdi eta Ane Alonso arkitektoak Lemoa inklusiboagoa egiteko proiektu proposamena aurkeztu dabe. Proiektuak kale nagusi bat proposatuten dau, luzea, zuzena eta bizia, zerbitzuz eta komertzioz betea. Baita herriko zonalde desbardinak lotuko dituen espaloiz eta bidegorriak be. Proiektuaren aurkezpena abenduaren 12an egin eben. 7. orrialdea

Gabon zoriontsuk opa deusueguz arratiaz guztioi

LAN BERTIKALAK

SOKA®

T.: 946 036 069 soka@sokavertikal.com sokavertikal.com

Arratiako artisau garagardoa: iluna, gozo-gozoa Zaezi Haizetara eta Denda Barrin salgai eta Areatza, Artea, Dima, Igorre eta Zeanuriko hainbat tabernetan. ESKATU EIZU!!!

Salmenta zuzena bariketan 17:00etatik 20:00etara Sabino Arana 35 kalean (Igorre) Edo 665715122ra deitu ezker eskaria etxera eroango deusuegu

# Literatura txokoa

## EL ARTE DE VOLAR

Nozean behin (batez be denporaz eskas nabiltanean eguneroko arduraren zurrunbiloan erdi itota) komikia irakurtea gustetan jata. Komikia, ala nobela grafikoa esan beharko neuke? Egia esan, beti gustau izan jata komikia berbea, eta berba horregaz geldituko naz.

*El arte de volar* komikian modu ez zuzenean memoria historikoa lantzean dau Altarribak. Antonio Altarriba idazlea Zaragozan jaio zan, eta idazle eta gidolari izateaz gainera, frantses literaturako irakaslea be izandakoa da, EHUn Gasteizen. Horregaitik berak idatzitako lanak frantsesez argitaratuta be aurkitu geinkez (hizkuntza hau praktiketako aukera ona!). Kasu honetan Kim Bartzelonako marrazkilaria (El Jueves komiki-aldizkariaren sortzaileeta-

riko bat) izan dau lagun.

Memoria historikoa lantzean dau, bai, baina liburu honen haria bere aitaren bizitza da (hau be Antonio izenekoa). Antonio aitak, zaharren egoitza baten egoala, bere burua leihotik behera bota eban depresinoak jota, 90 urte eukazanean. Egoera horretara zerk eroan eban jakin guran semeak aitaren bizitzaren errepaso egiten dau. 1910ean Zaragozako herri txiki baten jaiota, 36an Espainiako Gerra Zibila hasi zanean frankisten alde burukatzera derrigortu eben, baina hiru egun geroago desertatu eta errepublikarren aldera pasatu zan. Hortik aurrera Frantzian erbestea, anarkistakaz erlazinoak, gosea, Espainiara itzulera... aitaren bizitzaren bitartez errepaso sakona egiten deutsu Altarribak gerra garaia eta gerra osteko frankismoari.

Lehenengo personea erabilten dau autoreak, aitaren papelean sar-

tuta. Antonio semea be personaje moduan hazten ikusten dogu kontakizunean zehar, baina bere amaren presentzia eskasa da. Autoreak berak aitortu izan dauan moduan, aitagaz afinidade handiagoa euki eban, amaren izaera erlijiosoaren ondorioz batez be. Ama nahiko ezezaguna izan zan beretzat. Sarritan ondoan daukaguzanen bizitzak ze gixi ezetan doguzan be argi ixten dau Altarribak. Honen harira, *El ala rota lana* atera eban geroago, amaren bizitzagaz antzerako ariketa bat eginaz.

Zuri-baltzean marraztutako liburua da, Altarribaren komikietan ohikoa dan moduan. Kolore ezak eta Kimen marrazteko moduak be lagundu egiten dabe denporan atzera egiten.

Argitaratu eta hurrengo urtean Espainiako Komikiaren Sari Nazionala irabazi eban lan honek.

**Hektor Rodriguez**



Antonio Altarriba / Kim

*El arte de volar*

Edicions de Ponent, 2009

224 orrialde

## TELEFONO INTERESGARRIAK

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako Farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**  
**Abenduaren 17tik 23ra**

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

### 22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

### Abenduaren 24tik 30era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

### 22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

### Abenduaren 31tik urtailaren 6ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

### 22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

### Urte osoan

### 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

### Medikuak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren** 902 543 210

**Areatzako Notarioritza**

94 673 92 26

### Bizkaibus 94 612 55 55

#### Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

#### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

#### Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

#### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

#### Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behera.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behera.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

#### Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behera.

#### Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30, 19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urteten da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Ermitabarri-Arrigorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

#### Arrigorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

#### La Union 94 427 11 11

#### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

#### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandio korik ez dago.

## Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Illart Gumuzio, Miren Madariaga eta Alvaro Rabelli.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Goizalde Badiola (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen keak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:

[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Gabon-lorea



Neguko sasoian gure etxe gehienetan erregalitzen dan lora ezaguna da Gabon-lorea (Gabonlórea, ahoskatuta). Berez landarea da, ez lorea, baina bere orriak gorri-gorri paretan dirana lez, loreen antz handia dauka. Batuan, Pazko-lore esaten jako. Gabonetako jaietan sano ugariak dira etxe, denda, jatetxe eta hainbat espaziotan (lorategi, parke...).

## ERETXIA

### Euskaraldia ez da amaitu

**A** benduak 4. Amaitu da Euskaraldia. 11 eguneko esperimentu soziolinguistikoari heldu jako amaierara.

Nongura ikusi doguz Ahobizi eta Belarriprestak egunotan zehar. Belarritxikiak, Belarrigoxoak, Bihotzgoxoak... tokian-tokiko izena hartu dogu euskerearen maitale eta jagoleok.

Orue Eskolan be izan dogu gure hamaikakoa. Zelan ez ba? 11 eguneko esperimentua baino askoz gehiago da Euskaraldia. Ondo dakigu hori. Dana dala, egun honeetako saiakuntzak beste behin be balio izan deusku hezitzaile moduan gure ardatz soziopolitikoak barrikusteko.

Jakina da gizarte esku-hartzearen arloan, beste batzuetan legez, gaztelaniaz lan egiteko joerea gailentzen dala. Esparru sozialean lanean jarduten daben alkarte, erakunde eta gizarte mobimentuak, orokorrean, ez dabela euskera lehen lerroan ipinten. Begiratzea nahikoa da. Zenbat dira bere egunerokotasunean euskerearen aldeko apustua egiten daben alkarteak? Ikasleak lantokiko prestakuntza edo praktiken epealdia egin behar dabenean agertzen da lehenengo horrea. Izan be, gehien-gehienetan, esku-hartzea gaztelaniaz egitea izaten da egoerarik "ohikoena edo naturalena". Euskeraz gizarteratzeko ikasketak egin, eta lan mundura, zein boluntariotzaren munduan murgiltzean... gaztelaniagaz talka.

Bada, guk, argi daukagu, gizarte esku-hartzean euskeraz egin eta bizi gura dogu. Personakaz lan egiten dogu, hartu-emonak giltza diran esku-hartzeak diseinatu eta martxan ipinten doguz. Halabeharrez komunikazinoa eguneroko bitartekoa da gure lan esparruan.

Zergaitik esku-hartzea euskeraz egitearen aldeko aldarrikapena? Zergaitik tematzen gara gai honegaz? Ez jaku argudiorik falta.

-Euskal Herrian bizi garalako. Euskal Herrian lan egiten dogulako. Gure eskubidea dalako gure lan harre-



### ORUE ESKOLA

manak euskeraz eregitzea. Euskeraz ikasten dogulako. Euskeraz be lan egin ahal izateko. Horretan gabiz ahaleginean.

-Hizkuntza eskubideak etenbarik zapalduak diran herrian bizi garalako. Eta profesional legez, gure eginbehar sozial, politiko, kultural eta etikoa dalako eskubideen defentsan jardutea. Egoera zaurgarriak bizi dituen eta zapalduak diran personakaz lan egiten dogu. Zapalkuntza testuinguruetan bizi gara. Indarkeria sufriduten daben personaren ahalduntzea gure helburuetako bat izanda, zelan ez da ba izango gure ardura profesionala egoera zaurgarrian daukagun hizkuntza zapalkuntza katetik askatzea?

-Aniztasuna aukera gisa hartzean dogulako. Aniztasunak aberastu egiten gaitualako. Euskera be marraztu behar dogulako aniztasunaren paradigman. Euskera ikusi arazo gura dogulako, errekonozimentutik bere lekua emon gura deusagulako.

-Gure hezkuntza praktikearen etenbako errebisinoan, hizkuntza ohituren ikuspegia be txertatu gura dogulako. Hezitzaileok behin eta barriro galdegiten deusagu geure buruari: personea erdigunean ipini dogu? Esku-hartzea personalizaua eta koherentea da? Plano horizontal baten lanean nabil? Zelan kanalizetan da poderea nire esku-hartzean? Genero ikuspegiak bustiten ete nabil nire praktikea? Zenbait galdera ez dira falta profesionalon eguneroko barrikuste eta autokonzientzia prozesuetan. Ez dogu ba garaia, gure ebaluazino eta konzientzia erispideetan hizkuntza ohiturak be merezidu daben lerroa ekarteko? Aurrean daukadan personeari euskeraz zuzendu natxako? Badakit euskeraz ete dakian? Euskereari inklusiorako bitarteko moduan daukan balioa

aitortu deusat? Badakit aurrean daukadana Belarriprestak ete dan? Galdetu deusat zein hizkuntzatan sentiduten dan erosoan? Euskera bere gizarteratze prozesurako balio erantsi moduan aintzat hartu dot? Egin deusat konbitea euskerazko komunikaziorako?

Baina zelan egin hau? Zelan emon pausua? Zelan ekarri euskera gizarte esku-hartzearen lehen lerroa? Hemendik aurrera ez da Ahobizi eta Belarriprest txaparik izango paparretan. Gure esku dago ikerketeagaz jarraitzea, aurrean daukagun personeagaz Ahobizi izatea, Belarriprestak aktibetea, Belarrigoxoak eta Bihotzgoxoak euskerearen erabilerara konbidatzea...

Hona hemen norbere hezkuntza praktikan txertatzeko hainbat hausnarketarako gako edo konseju:

-Euskera erdigunera ekarri. Euskeraz komuniketako premia sortu. Aukerak sortu. Espazioak sortu. Komunikazino espazioetan lekua hartu.

-Hizkuntza jagon: babestu, maitatu eta erabili.

-Konplejuak gainditu: zergaitik ez lehenengo berbea euskeraz? Haurrentzako kanta batek inoan moduan: "Ezezagun bat baldin baduzu mintzakide buruz-buru, egin iezaiozu euskeraz eta, beharbada jakingo du".

-Euskera gizarteratzeko balio moduan ulertu: euskera danona dalako. Gure esku-hartze hartu-emonetan balioesten eta erabilten ez badogu, aurrean daukagun personeari adierazoten deusagu euskera ez dala baliagarria, ez daukala zentzurik gure testuinguruetan, ez dala berarentzako.

-Gure ardura hartu: besteai (erakundeai, esku-hartzean dogun personai) ardura egozteagaz ez dogulako aurrerapausurik egiten. Guk geuk be badaukagulako ardura zati bat. Zatiirik handiena, seguruenik. Egin zure hautua!

-Aldarrikatu irauli: euskeraz lan egin gura dogula ozen eta harro adierazo.

Bada, hasi gaitzean.

Orue Eskolako zuztarretatik, adarretara, zutunik dirauen zugatzak daroe euskera.

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA



## LUMATUTEN

ARANTZA  
ETXEBARRIA

## Superpoderea

**A**benduan gagoz. Lerro honeek urteko azken hilabetean idaztea suertatu jat. Baina ez deusuet Gabonen gainean berbarik egingo. Atzera begiratuko dot. Izan be, amaitu barri da Euskaraldia. Eta han-hor-hemen entzunekoak balorazino moduko bat egitea toketan jat.

Jenteagaz berba egin dot, eta esan deuste Euskaraldia ez dala bardin bizi izan herrian eta urian. Herrian gitxi gorabehera ezaguna dogu albokoa, bada-kigu nork dakien euskeraz eta nork ez, eta bada-kigu nor dagoan prest euskeraz erantzuteko eta nor ez.

Urian, ostera, harreman barriak egiten dira ia-ia egunero. Ni Bilbon bizi naz, eta fruta-denda, okindegia, erropa-denda... hainbat lokal barri bisitetan dodaz egunero, eskura daukadazalako, eta dendaria be ezezaguna izaten jat askotan.

Horregaitik, nire kasuan,

kanpainari oso eraginkor eretxi deusat. Sorpresa politak hartu dodaz txapea nork jantzi dauan ikusita. Eta nik neuk be txapea jantzita daukadala ikusita, denda askotan euskeraz hurbildu dira nigana.

Egia da neure burua babestuta sentidu dodala, txapeak emon deustala superpodere moduko bat. Baina pena bakarria daukat. 11 eguneko tartea laburregi egin jat. 11 egun horreetan ezin izan dodaz Bilboko denda guztiak bisitatu, eta Bilboko euskaldun guztiak be ez dot bat egin kalean. Euskaldunak gerizpetan geratu jataz barriro.

Nik neuk oindino ez dot txapea erantzi, superpoderea galdu gura ez dodalako. Gaurtik hasita, hurrengo Euskaraldiari adi nago.

## ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

## Ispilua

**J**oxe eta emaztea lurralde urrun bateko inguru menditsu eta bakarti batean bizi ziren. Lurra lantzetik bizi ziren. Baina, hain zen malkartsua lur hura, ezen, doi-doi bizi zitezkeen. Hala ere, goizero, sekula huts egin gabe, biak ala biak olaritatean jaikitzen ziren lur txiro hari etekinen bat ateratzeko asmoz, ahora zer eraman edukiko bazuten. Ez zen erraza. Ortu txiki bat etxetxoaren ondoan, fruta-arbola batzuk eta lauzpabost oilo deslumatu, askotan azerien gozagarri. Horrekin jaten zuten. Ez zen nahikoa, ordea. Horregaitik, sosen bat atera ahal izateko gari-solo bat gobernatzan zuten. Hura ere ez oso handia, eta gainera, handik jasotzen zuten uzta osoa saltzeko zen. Eurek ezin zuten garizko ogi biguna jan, talo beltz eta gogorarekin konformatu behar zuten.

Uda aldean, uzta batzeko unea heldu zen. Larraineko lanak egin ostean, bazituzten saltzeko prest zaku batzuk bete gari. Behin, Joxe, goizik altxatu eta uzta herriko azokan saltzera joan zen. Abiatu baino lehen emazteak orrazi bat ekarri behar ziola gogorazi zion. Joxek, burua mugituz, baiezko keinua egin zuen. Orrazia ekarri egingo zion. Joxek uzta saldua dirutxo bat lortu zuen, horrekin hurrengo neguari ez

zioten zertan beldurrik izan.

Baina, etxera itzuli aurretik, Joxe tabernara joan zen azoka egun hura aspaldiko lagunekin ospatzera. Bertan, edan eta edan jardun zuten barre eta algara artean. Joxek hainbeste edan zuen, ezen ez zituen emazteak esandako hitzak gogoratzen. Bazekien jakin zeozero erosteko agindu ziola, baina ez zuen zehatz-mehatz zer zen gogoratzen. Erabat ahaztuta zeukan. Orduan, emazteari zerbait eraman behar zionez gero, ikusi zuen emakumeentzako lehenengo dendan sartu eta han zeuden milaka gauza ederren artean ispilua bat erostea bururatu zitzaion. Joxe etxera itzuli zen ispilua galtzarbean zeramala, paperetan bildua.

Heldu zenean, emazteari eman zion, eta ortuko lanak egitera joan zen. Emazteak ispilua atera zuen paper artetik eta harrituta begiratu zuen. Berehala eman zion negar egiteari. Eta horrela, negar batean, amarengana jo zuen.

-Begira zer ekarri duen etxera nire senarrak, beste emakume bat, liraina eta ederra!

Amak, orduan, ispilua hartu eta begiratu zuen.

-Ez kezkatu, oso zaharra da.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**A**rratiako zati txiki hau ikusten dot erredakzinoko lehiotik. Paisaje bera, baina beti desbardina. Izan be, denporeak aldatu egiten dau dana; batzuetan, bat-batean eta beste batzuetan apurka-apurka.

Paisaje bera be desbardin ikusten da argi desbardinaren pean. Eta urte sasoi, eguneko ordu eta eguraldiari esker, momentu bakotzeko argiak, paisajearen egoera animikoaren barri emoten deuskula dirudi.

Urteetan zehar, apenas konturatu barik, aldaketak gertatzen dira paisajeetan. Apurka-apurka gertatutakoak ikusi be ez doguz egiten, aldaketa horreen konziente ez gara izaten, antxinako argazki bat gaz alderatu arte. Paisajearen aldaketetara lez, edadeak geure azalean sortzean dituan zimurretara eta orbanetara be ohitzen gara. Denporeak antzeko errastua ixten daualako paisajearen eta personongan.

Hamabi urte bete dira BEGITUN beharrean hasi nintzala. Paisajea eta neu aldatu egin gara. Bide, zimur, orban, zauri eta arbol adar sendoak daukaguz biok. Arratiari begira lehiotik eta bertan murgilduta emon dot atzenengo urte dozeena, gure artean komunikazioa sortu guran. Momentu bakotzeko argiaren konziente izanda, desbardin begiratuaren saiatu naz, begiratuaren konplexidade eta aniztasuna ulertuteko.

Alkarrerri begitu deusagu seguruenik, komunikazioa norabide bitakoa izaten da-eta.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisci.com](mailto:gorosti@gorostisci.com)

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Olatondegia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zentiloa 101  
R.P.S. 31/06

**Itxasne Atutxa**  
Erdu!  
Ez dakizu zer oparitu Gabonetan?  
Oparitu:  
Kiromasaje saioak  
Harri beroakaz masaje lasaigarria  
Reflexologia saioak  
Kirol masajea  
Reiki saioak  
Eleizondo 15 · Zeanuri · 685 711 520



## ARTEA

# Keko Alonso: "Prozesu naturalen aldeko basogintzea errentagarria izan daiteke"

Keko Alonso biologoaren ustez, pinuak emon ditu bere urterik onenak eta zerrenda marroiaren gaisotasunak eredu aldatzeko momentua heldu dala pentsau arazo deutso pinudi jaube askori. Pinua, eukaliptoaren monolaborantzeagaz ordezkatu beharrean, lurrarentzako hain kaltegarriak ez diran eta ingurumen eta personentzat hain arriskutsuak ez diran beste alternatiba errentagarriak badagozala uste dau Alonsok. Izan be, basoaren prozesu naturalen alde, eta ez kontra, lan eginda eta imajinazioa erabilia, errentagarritasuna atera ahal jakola basoari esan eban *Basogintza Bizkaian. Eta orain zer?* izenpean Artean emondako berbaldian.

### Erredakzioa

Bizkaiko azalerearen %40 herriak, kaminoak eta abar osotuten dabe; hau da, "azalera humanizaua" deitu ahal dana da; beste %60a barriz, mendia da, "arbolduna". Baina mendietan baso gitxi dagoz, plantazioak dira nagusi, %75 hain zuzen be. Kostaldean, Armintzan, Lemoizen, Bakion... eukalipto dago eta hegoaldean, Arratian, berbarako, radiata edo insignis pinua batez be; Monterreyko (Kalifornia) pinua, hain zuzen be. Eukaliptoak 20.000 hektarea inguru hartzean ditu honezkero; horreetako, 3.000 hektarea lursail publikoetan. Bertako basoak, arboldun lurraren %25 hartzean dabe: Gorbeia inguruko basoak, eta Lekeitio eta Urdaibaiko artegak dira horreetako batzuk.

Baina "basoen gainean egiten dogunean berba, kontuan izan behar da nor dan lurraren jaubea. Hemen %75 lur partikularrak dira" esan eban Alonsok.

### Radiata pinuaren gainbehera

Radiata pinuaren krisia ez da aurtengo udan hasi zerrenda marroiagaz. "2005 edo 2006an egurraren prezioak jeisten hasi ziran eta gaur egun, tonak edo metro kubikoak 2000 urtean balio eban erdia balio dau. Gainera, lur sailak ez dabe produziduten hainbeste egur hektareako eta urteko. Eta produktibitatea eta prezioak txikiagoak izanda, kontuak ez dira urtetan". Krisi hau berau, Europan be gertatu zan oin dala urte batzuk, beste espezie batzukaz, izeiagaz, esate baterako.

Plantazioak ez dira basoak. Basoa, arbol egiturazko ekosistema da. Basoan, arbolak espezie, edade eta forma desberdinetakoak dira. Plantazioetan, danak dira edade berekoak, ez dago basoperik eta hil be arbol guztiak batera hiltzen dira. "Ikusten dogunean pagadi baten pago guztiak adin berekoak dirala eta sasoi berean moztu deutseezala adarrak, orduan zugazti baten



Otzarretako pagoak. Goian, ezkerretan, Keko Alonso biologoa.

aurrean gagoz, hori ez da basoa". Basoan, hildako egurra be egon behar da, etzanda eta zutunik eta zugaskak, garoa, bedarra, likenak eta onddo mikorritikoak be bai. Ondoren, ekosistemearen beste organismoak garatuko dira: hegaztiak, orkatzak, hartzak...

Biodibersidaderako arbol zaharrak eta onddo mikorritikoak garrantzi handia daukiela esan eban adituak.

### Izan leiteken basoa, baso kaduzifolia

Izan leiteken basoaren kontzeptuak, ehun urtez gizakirik ez balego egongo litzatekeen basoari egiten deutso erreferentzia. Keko Alonsoren arabera, hemen, harestiaren

eremua bederatz aldiz handiagoa izango litzateke; harestiaren %90 deuseztauta dagoalako eta %10 baino ez daukagulako. Haltzaga be, antzeko egoeran dago.

Bizi garan lekuan, zugatzen estrategia nagusia hostoak galtzearena da. Euria egiten dau, ez da lehorte luzerik izaten eta ez dau hotz handirik egiten. Zugatzak handiak izaten dira, 20 metroko altuerara erraz heltzean dira, eta horregaitik, haizea izaten da arazoa. Hori dala-eta "belauntzi baten antzera, tenporala dogoan arbolak hosto tonak botaten dabez ez apurtuteko. Urtero, belak modukoak diran hostoak jaurtzen dabez lurrera". Eta hosto horreek bakterio eta onddoen lanari

esker desegiten dira eta zizareak hori jaten hasten dira. Zizareak zuloak egiten dabez eta zizareak jaten dituen satorrak be bai. Prozesu honeri esker, lurtean airea sartzean da eta ur asko dogoan ez dira putzuak egiten, lurra esponja baten moduko dala. Baina plantazioetan, "makineria sartzean dogunean lur sail baten, airea sartzea eta ura urtetea bermatzen dauan egitura osoa suntsitzen dogu". Eta 2017ko neguan moduan, hiru hilabetetan 900 litro euri egiten baditu, mendi hegala jausi egiten da, Larrabetzu eta Fika artean gertatu zan moduan.

Hori gitxi balitz, baso kaduzifolioetan humus-buztina sortzean dala eta honek klima mantenduten zelan lagunduten dauan azaldu eban Alonsok.

### Sartutako zugaztiak, mediterraneokoak

Atzen hamarkadetan sartu doguzan zugatzak mediterraneoko klimakoak dira. "Hiru urterik behin botaten dabez hostoak eta bota aurretik nutriente guztiak hartzean ditue. Kaduzifolioak sortutako lurretan sartu doguz mediterraneoko klimako zugaztiak", lur emonkorretan beraz eta hasikera baten etekin handia emoten dabe. Baina zugatzok nutrienteak hartzean ditue baina ez ditue lurrera bueltetan eta arbola moztetakoan, nutrienteen prozesu zirkularra eten egiten da. Gainera pinuaren hostoak, lurra azidifiketan dabezan substantzia batzukaz babestuta dagoz.

Beraz, arbol honeek materia organiko gitxi eta kalidade txaragokoa emoten deusie lurrari eta azkar hazten diranez, ur eta nutriente asko behar dabez. Lurra agortu egiten da. Horregaitik, hasikera baten, pinuak etekin handia emoten baeban be, lur emonkorretan sartu zalako, gaur egun, lurrak antzutu egin diranean, ez da hain errentagarri urtetan. Hau da, pinudiak produktibo izan dira lehenengo belaunaldian, hostogalkorren lurretan sartu diranean,

bigarren belaunaldiak mantentzen egin dau produktibitatea, baina ezin izan dau luzaroan mantentzen errentagarritasuna.

Oindino okerragoa da eukaliptoaren kasua, kaltea handiagoa dalako. Eukaliptoaren hostoak substantzia toxikoak ditu eta lurra gehiago azidifiketan dau. Materia organiko bako eta esponja baten moduan funtzionetan ez daben lur horreetan, putzuak sortzean dira udan eta eukaliptoaren hostoak bertan jausten diranean, toxinak sortzean dira uretan. Eta oso azkar hazten diranez, 12 edo 15 urterik behin, moztu egiten dira arbol guztiak, mendi hegal osoa galtzeako arriskua handituz.

Hori gitxi balitz, sute handiak eta eukalipto lotuta dogozala dino Alonsok. "Zer gertatzen da eukalipto sail handiak daukaguzanean etetik hur? Zer gertatu da Portugalen eta Galizan? Zenbat jente hil da suteetatik iges egin guran?" Eukaliptoak sutatik babesteko substantziak dituala eta sua zabaltzen lagunduten daua dino.

Atzenik, eukalipto ipini ezker, sano gatxa da kentzea, ze moztutakoan barriro hazten da.

### Berezko baso errentagarriak

Europako herrialde batzuetan hasi dira bertako espeziekaz lanean eta arbolak danak batera ez moztzen. Zenbat eta gehiago hurreratu "izan leiteken basora" orduan eta egonkorragoa izango da. Zenbat eta gehiago alden du, arriskutsuagoa.

Baina zelan atera errentagarritasuna baso honeei? Ondo pagetan dan egurra sartuz eta beste bide batzuetatik errentagarritasuna ateraten. Bide alternatibo horreetako batzuk aitatu ebazan Alonsok. Esate baterako, Sorian, perretxikoetan joateko lizentziak kobretan dabez eta Asturiasen shiitake onddoak produziduten dabez; Japonian, basoan egotearen balio terapeutikoari ateraten deusie etekin; Alemanian, saiutzen dira basoai errentagarritasuna ateraten basoak hillerri bihurtuz; eta hemendik sano gertu, arbol gainean txabolak ipini ditu Kataluniako enpresa batek eta jentek 120 euro pagetan ditu gau bat bertan emotearrean. "Emon denporea zure lursailari, ikusi zer gertatzen dan eta gero hartu ebatzia. Gizarteak gero eta balio handiagoa emoten deutso naturara buelteteari, basoan pasealdi bat emoteko, perretxikotan joateko edo hildakoak gogora ekarteko".

Izan leiteken basoetatik ateratako egurra be askoz karuago saldu daitekela dino Alonsok. Eta egurraren prezioak oso aldakorak izan arren, "egur merkea eta kalidade handiko egurraren arteko prezioaren aldea mantentzen" egiten dala esan eban.



## ARRATIA

## La Caixak eta AUMk hitzarmena sinatu dabe umeak eskolaz kanpoko ekintzak egin ahal izateko

### Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) lankidetzaz hitzarmena sinatu dau La Caixa-ko Gizarte Ekintzagaz, baliabide gitxiko famulietako umeak eskolaz kanpoko ekintza osogarrien gastuak ordaintzeko helburuagaz, batez be Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zikloetan. Akordioa 3.600 eurokoa da.

Akordio horri esker, Arratiako 7 eta 16 urte bitarteko 22 adinbakok kostu ekonomikoa

daukien ekintzak egin ahal izateko ikasturte honetan. Laguntzak batez be hezkuntza-formakuntzaren osogari diran jardueretatik, hau da, errefortzu akademikorako; kirol-jardueretatik, uger egitea, futbola eta taekwondo, berbarako, edo-eta robotika moduko jarduera zientifikoetatik, eratorritako gastuak ordaintzeko erabiliko dira.

Arratiako Udalen Mankomunitatearen Gizarte Zerbitzuak aukatuko ditu diru-laguntza honeen hartzaileak.



## ARRATIA

## Andrazko bilakatzeko prozesua aztertuko dabe Artean

### Erredakzioa

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen programazioaren barruan, abenduaren 14 eta 15erako egoan aurreikusita Kattalin Minerren eskutik, *Nola egiten gaituzte andrazko?* ikastaroa. Baina aldaketa bat dala eta ikastaroa hilaren 21 eta 22an izango da Arteako Andran Gelan.

Ikastaroak saio bi izango ditu. Lehenengoa, barikuan, hilak 21 izango da, 17:00etatik 20:00etara eta bigarrena zapatuan 10:00etatik 13:00etara.



## IGORRE

## Illart Gumuzio izango da EH Bilduren alkatetzarako hautagaia 2019ko Udal Hauteskundeetan

### Erredakzioa

Illart Gumuzio izango da datorren urteko hauteskundeetan EH Bilduren hautagaia. Zementiarren 16an Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa gelan egindako herri batzarrean berretsi eben bere hautagaizta.

Illart Gumuzio Larrazabal, Zezurin jaio zan 1990ean. Gaztetan Arratiako Bertso Eskolan hasi zan eta ondorioz, Igorreko Euskera Planean be hasi zan kolaboretan. Hainbat herrigintza eta kultura taldeetan jarduten dau. Kultureari jagokonean, musika taldeetan jotzen dau; Exaixu, Exkixuren gorazarre taldea, Eguenero elektrotzaranga eta Bieskas bikote akustikoan, hain zuzen be. BEGITU aldizkarian

be egiten ditu kolaborazioak. Herrigintzeari jagokonean, Igorreko Jai Batzordean, Zaztaparrak Asti Taldean, Kiñu Gaztetxean edo-eta Zertu Kultur Elkarteetan. Gaur egun, Igorreko Gazteria Zerbitzuan eta Igorreko eskolan martxan dagoan Euskera Agoan proiektuan egiten dau behar.

Beinat Anzola oingo alkatea, 8 urtetako agintaldiaren ostean, ez da barriro aurkeztuko, holan dagoalako onartuta EH Bilduren estatutuetan.

### Zerrenda osotu

Igorreko EH Bilduren hauteskunde zerrenda osotuko daben personak proposatutako eta izentatzeko prozesu parte-hartzailea 2019ko martian egingo dau EH Bilduk.

## LEMOA

## Presoen eskubideen aldeko manifestazioa deitu dabe Gabon Zahar egunerako

### Erredakzioa

Urtero lez, abenduaren 31ko arrastiko 18:30erako, euskal preso, igeslari, eta deportaduen –Inaki Bilbao eta Tomas Linaza lemoztarrak tartean– eskubideen aldeko manifestaziora deitu dau Arratiako Kalerak Kalerak dinamikeak eta Lemoako Bagabiz Badatozek. Manifestazioa Lemoako Intzuntzako plaza gorrian hasiko da eta amaieran ekitaldixoa egingo dabe.

Kalerak Kalerak euskal preso eta igeslarien aldeko mobilizazioak, espetxeetara martxak eta ekitaldi kulturalak antolatuten ditu Euskal Herrian zehar, presoen kaleratzea

eskatzeko; urte amaierako Lemoako manifestazioa berbarako.



## AREATZA

## Alokairurako diru laguntzak emongo deutsez gazteai Udalak

### Erredakzioa

Areatzako Udalak gazteak udalerrian geratu daitezkan biziten, alokairua ordaintzeko diru laguntzak emongo ditu. Horretarako, 6.000 euroko diru partidea dago 2018an. Eskerak abenduaren 28ra arte egin leitezke Areatzako udaletxean.

Laguntzak, 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzat dira. Laguntza jasoteko, eskaerea egiteko momentuan, alkarbizitza unidada osotuten daben personetako bat gitxienez, Areatzan egon behar da errolatuta, gitxienez 5 urteko etenik bako antxinasunagaz. Alkarbizitza unidada persona guztiak diruz lagunduko dan etxe-

bizitzan errolatu beharko dira.

Laguntzak alkarbizitza unidada dearen diru sarreraren arabera emongo dira.

### Beste laguntza batzuk bateragarriak

Areatzako Udalak gazteai emongo deutsez alokairurako diru laguntzak, beste erakunde batzuek kontzeptu berarengaitik emoten dabezan diru laguntzak bateragarriak dira. Beti be, laguntza horreek guztiak ez badabe gainditzen errentatzaileari ordaindu beharreko errentea.

M. Jose zure arropa

94 631 90 08

**GALANTA**

Zure Olentzeroak Galantan Urte barri on!

Agirre  
Lehendakaria 23  
48140 Igorre  
galanta@hotmail.es

www.facecook.com/galanta.lenceria

**FISIK**

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIO ZENTROA

Tel. 94 685 11 16

LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

J.A. IZQUIERDO

PINTURA LANAK

MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA

Bizkaia, 33 D - 1º - 48140 IGORRE (Bizkaia)

Tel. 94 631 64 83 - 905 884 019

**DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA**

- Psikologia
- Logopedia
- Fisioterapia
- Ulermen tailerra
- Jarrera arazoak
- Emozioen tailerra
- Psikomotrizitatea
- Adimen emozionala
- Trebetasun sozialak
- Estimulazio goiztiarra
- Eta askoz gehiago...

652 702 650 / 672 481 370

Lehendakari Agirre 4 · Igorre

maite.eileke@gmail.com





**LEMOA**

# HAPOn generoa txertatzeko proposamena aurkeztu dabe

Aurreko saioetan jasotakoagaz, Eider Ayerdi eta Ane Alonso arkitektoak herri inklusiboagoa bilatzen dauan proiektu proposamena aurkeztu eutseen lemoaztarrai abenduaren 12an. Eztabaidaren osteko ekarpenak jaso, dokumentua egin eta Hiri Antolakuntzako Plan Orokorreara bialduko dabe, Plan Orokorrean proposamena kontuan izan dagien.

**Erredakzioa**

Zonalde bi lotuko dituan kale nagusi bat sortzea eta bidegorriz eta espaloiz lotzea herriko zonaldeak proposatzen dau proiektuak. Gainera, herrian dagoan ahal dan guztia mantenidu, eraikinik bota barik, gura dabe arkitekto biak.

**Errekea, oztopo eta aukerea**

Herria zatituten daben hiru oztopo ditu Lemoak; errekea, trena eta zementu fabrikea. Eta ez dira herri inklusibo bat egiteko oztopo bakarrik: merkataritza makal dago; inguruko herrietara oinez edo bizikletaz joatea ez da erraza; atzen urteotan ez da babestutako etxebizitzaren eskaintzarik egon; zaharretxerik be ez dago; jente gaztearen kopuruak behera egin dau nabarmen, eta lan bako andren tasa Bizkaiko batatz bestekoa baino altuagoa da.

Baina aldi berean, espazio publiko handia dauka Lemoak; ekipamentuak nahikoak dira; jentek asko baloretan dauzan base-

ri inguruak daukaz herrigunean; erreka bi... Garraio publikoa onada, eta herria ondo komunikatuta dago. Galdakao, Zornotza eta Igorre artean dago eta jarduera ekonomikoetara dedikautako espazio handiak ditu.

Hortik abiatuta, "herrian dagoana mantenidu eta hazkundera edo moldaketea" ahalbideratzea



dauka helburu proposamenak.

**Espaloi jarriak mobildadea bermatzeko**

Akaso proposatzen daben esku hartzerik interesgarriena litzateke, herriko iparraldean, kale nagusi luze eta zuzena, hainbat udal ekipamentu lotzean ditua eta bizitasun handikoa egitea. Gaur be bizitasun handia dauka kale horrek baina futbol zelaiak bannaduten ditu zonalde biak. Kale hori luzatu eta zonalde biak lotuz egingo litzateke kale nagusi hau. Horretarako futbol zelaia mobidu beharko litzateke.

Herriari jarraitasuna emoteak garrantzi handia dauka eta horretarako hainbat gauza egin leitezke: oinezkoentzako zubi barri bat eskolen aurrean zonalde bi lotzeako, bidegorri eta espaloi sare ekipamentu guztiak lotzeako, eta abar.

Izan be, gaur egun, leku asko ez dagoz lotuta oinezkoentzako bide seguruakaz; hau da, etenik ez daukien espaloiakaz, eta horrek jentea hortik ez ibiltea dakar, beste batzuen artean segurtasunik ezaren arazoak sortuz.

**DIMA**

# Beinke jai solidariora antolatu dabe Diman

Abenduaren 29an, gaixotasun arraroak dituen umeen familiei lagunduten deuten Gure Señeak eta ezgaitasun psikiko edo funtzionala daukien umeen familiei lagunduten deuten Karenka alkarteai lagunduteko jaialdia antolatu dabe Diman.



**Erredakzioa**

Frontoian izango da eta arrastiko lauretan hasiko da, Dimesten alkartearen jolasak eta photocall-agaz. Ondoren herri kirol desafio "mundiala" egongo da eta bertan, Zeanurik, Areatzak eta Dimak hartuko dabe parte. Honeek dira parte hartzaileak: Jurek Ziemkiewicz, Juan Lazpita, Manu Cejudo, Xabi Olibares, Maider Kortazar, Haizea Ziarrusta, Olaia Gurtubai eta Izaskun Atutxa Dimatik; Naia Arandia, Haizea

Iturbe, Janire Campo, Maitane Campo, Mikel Amuriza, Jaime Atxa, Mikel Charro eta Ibai Milikua Areatzatik eta Puy Arrieta, Belen Astondoa, Miren Ozerinjuregi, Irati Astondoa, Julen Etxebarria, Jon Intxaurbete, Joseba Gortazar eta Iñigo Aseginolaza Zeanuritik. Eneko Izak egingo ditu aurkezle beharrak eta Jabi Olibares arituko da bertsotan. Aurten antolatzaileak Arratiara zabaldu gura izan dabe jai solidariora eta beste herrietako partaidetza eta laguntza handia izan dabela dinoe. Iluntzeko 19:00etan, Beinke kantuan hasiko da eta honetarako be Arratiako eta Arratiatik kanpoko musikarien laguntza izan dabe. Amaituteko 21:30ean, herri afaria egongo da.

Desafioa eta Beinke kanturako sarrerak 10 euroko prezioan nagusientzat eta 5 eurokoan umeentzat salduko dira. Herri afaria be 10 eurotan.

Materiala be salgai euki dabe Beinkekoak baina "dana agortu da, jentea eskean eta eskean dabil, aupa Arratia" dinoe antolatzaileak. Hori dala eta beste eskari bat egiteko asmoa daukiela adierazo dabe.

**Arratia** Ubide eta zeberioko **euskerea** eta kulturearen alde

**Egin zaitez zeu be**

**Degitu-Lagun**

Hamabostero Degitu zeure etxean

Eltxean jasoko dozuz zertu kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Zertu Kultur Elkarteak:  
Herriko Plaza 21. 40112. Artea

Izen-abizenak:  
Izenbidea:  
Herria:  
Telefonoa:  
E-posta:  
Urteko kuotea aukeratu: 35€ 55€ 75€

**begitu**



## ARRATIA

## Igeltsuaren ordezkotako ferulak egiteko proiektuak irabazi dau Mankomunitateko Enpresa-Ideien Lehiaketean

Gorka Goikoetxea Urkiaga eta Hodei Letek irabazi dabe Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) antolatutako Arratiako Enpresa-Ideien Lehiaketean, Sendo Athete Care proiektuagaz. Hau, hiru dimensioetako inpresoreagaz egindako ferula bat da, igeltsuaren ordezkotako. Produktua talde mediku batez eta Zulaibar Lanbide Ikastegiaren laguntzeagaz garatu dabe.



Miguel Angel Etxebarria, Gorka Goikoetxea, Hodei Lete eta Maitane Leizaola.

## Erredakzioa

Bigarren saria Xabier Fuenteren Ogi desbardinak izeneko proiektuarentzat izan da. Fuentek Zea-nurin egiten ditu ogiak. Hirugarren saria emon barik geratu zan. Bederatzi proiektu aurkeztu zira.

Enpresa-Ideien Lehiaketara, igaz hiru izan ziran. Aurkeztutako beste proiektuak, modako erropea saltzeko plataforma bat, insignis pinuaren laborantzari alternatiba bat, genero aholkularitza, eskaletako materiala saldu, ikastaroak emon eta turismoagaz lotutako enpresa proiektua, txanpinoiak ekoiztekoa, Arratiako lekuak zabaltzeko aplikazioa eta bertoko produktu ekologiko eta sasoiak komertzializetako proiektuak izan dira aurkeztutako enpresa ideak.

## Sari banaketea

Sari banaketa ekitaldia, abenduaren 11n izan zan. Bertan, Miguel Angel Etxebarria eta Iñaki Barrenetxea egon ziran AUMko ordezkari; Maitane Leizaola, Karmele Insausti eta Esti Biguri, Bizkaiko Foru Aldunditik eta lehiaketako epaimahaikideak egon ziran bertan.

"Gaztedi Arratia izeneko proiektuaren inplementazioari esker, gazteriari zuzendutako hainbat zerbitzu eta jarduera garatzeko programak burutu ditu. Jarduera horreen barruan, garrantzi berezia emon deusagu enpleguari. Horretarako 2018 Enpresa-Ideien II. Lehiaketa antolatu dogu, 18 eta 35 urte bitarteko gazteak zuzenduta" azaldu eban Miguel Angel Etxebarria AUMko presidentek sari banaketa ekitaldian.

Maitane Leizaola BFAko Behatutako Zuzendariak hartu eban gero berbea eta esan eban aurkeztu diran ideak aukera errealek dirala lanpostuak sortzeko. Datozan urteetan be hazten joan ezker, diru gehiago ipini beharko dabela lehiaketa honetarako esan eban Leizaolak. Aurten, lehenengo saria 6.000 eurokoa izan da eta bigarrena, 3.000 eurokoa.

## Prozesuaren aldaketea eta partaideen kejak

Idea lehiaketako partaide batzuk kejak dira, aukeraketa prozesua hasita egoanean, proiektua aurrez aurre aurkezteko eskatu eutseelako. "Email bat jaso genduan esanez idearen aurrez aurre aurkeztu egin behar genduala 10 eguneko epean".

Hori dala eta kejak aurkeztu ebezala dino, bai emailaz baita keja orria beteta be.

Jatsu Intxaurbe epaimahaikidearen arabera barriz, aurrez aurrekoa ez zan derrigorrezkoa eta proiektuak eukiko dauan inpaktoa azaltzeko aukerea emoteko planteau ebela dino.

Sari banaketa ekitaldian, Miguel Angel Etxebarria AUMko presidentek, gauza batzuk txarto egin zirala eta kontuan hartu dabezala hurrengoan ez gertatzeko esan eban.

## ARRATIA

## Botaba Lehiaketan euskaltegiakotako bideorik onenaren saria irabazi dau Kubulu euskaltegiak

## Miren Madariaga

Botaba Euskal Esamoldeen Bideo Lehiaketa Labayruk Gaztea Irratiaz alkarlanean antolatuten dau eta kaleko hizkera informaleko esamoldeak sare sozialen bidez zabalduete dauka helburu nagusi.

Euskaltegiakotako berezia eskaini jakie aurten, eta lehiaketara aurkeztu diran bideoen artean Igorreko AEK Kubulu euskaltegiakotako ikasleak saritu ditue. Ikasgelan zalditik astora ibili esamoldeagaz grabatutako bideoak egin ditu irabazle eta sagardotegian ospatu ahal izango dabe hamar lagunentzako bazkari edo afarian.

Lehiaketara aurkeztutea AEK-ko irakasle batek botatutako erronkaren ostean ebatzi eban. Aurreko urteko bideoak ikusi, eskolan esamoldeak landu eta bi taldetan banatu ostean, esamolde bana aukeratu, horren arabera gidoia sortu eta grabaketea telefono batez egin eban, dana egun berean.





VOGUE CH ROXY GUESS POLICE BOLLÉ CEBÉ Silhouette V&L Ray-Ban

# Adi egon! LASTER ENTZUMEN ZENTROA ZABALDUKO DOGU



**Olaetxe**  
OPTIKA ZENTRUA

Betiko hurbileko trataera eta profesionaltasun guztia

Sabino Arana 3. 48140 IGORRE (Bizkaia) 94 657 70 03 olaetxeoptika@hotmail.es

## amalur

baso eta lorategia



- Pentsuak, lorak, landarak, fito-sanitarioak, oiloak, orturako edo lorategirako danerik saltzean dogu
- Egin eskaerak WhatsApp bidez
- Eskatu aurrekontua ezelango konpromiso barik





Jabier Petralanda Olibares  
Igorreko Industrialdea B4-1 pabilioia  
48140 IGORRE  
94 673 69 81 / 650 273 981

## Husqvarna

- Makinen konponketak egiteko tailerra daukagu







# GALARZA

Funeraria - Ehorztetxea

funerariagalarza.com

## egizu lo lasai, geu arduratuko gara zeure loaz

- Beilatokia
- Errausketa-labea
- Gorpuak eroan zein ekarri estatu barruan eta atzerrian
- Lora-apaingarrien salmenta
- Gestino administratiboa
- Eskelak, doluminak eta esker onak online

- **Bulegoa**  
Zabalea, 51 · 48960 Galdakao  
t. 944 570 395 (24 ordu)  
f. 944 575 043  
e. info@funerariagalarza.com

- **Dimako tanatorioa**  
Ziarrusta industrialdea, 39

- **Galdakaoko tanatorioa**  
Zabalea, 24





## GABONETAKO AGENDEA

# Gabonen inguruan kultura eskaintza zabala egongo da Arratiako herrietan

Arratia, Ubide eta Zeberioko udalak eta alkarteak, ume eta nagusientzako kultura jarduera ugari prestatu ditue Gabon sasoirako. Olentzeroren etorrerea ez da inon faltauko eta Errege Magoen Kabalgatak be egongo dira Areatzan, Bedian eta Igorren. Umeak olgetako aukera parebakoa izango dabe Umeentzako Gabonetako Parkeetan eta Gontzal Mendibilen *Gau magikoa* musikala ikusteko aukerea izango dabe. Nagusientzako eskaintza barriz, batez be kontzertuak, antzerkiak eta kirolak osotuten dabe.

## Erredakzioa

## Arantzazu

### Abenduak 24, astelehena

12:00etan, plazatik hasita herrian zehar Olentzero abestu; 13:00etan, Olentzerori harrerea plazan.

### Abenduak 29, zapatua

11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea frontoian.



## Areatza

### Abenduak 24, astelehena

11:00etatik 13:00etara, tailerrak plazan; 13:00etan, Olentzero eta Mari Domingiren harrerako jantzearen entsegua; 17:00etan, kalejirea herrian zehar, plazatik urtenda; 18:15ean, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea plazan.

### Abenduak 28, barikua

12:00etan, Trakamatraka musika tailerra udaletxean, AKKBk antolatuta.

### Abenduak 30, domekea

19:00etan, Areatzako Bandaren urte amaierako kontzertua. Eleizan.

### Abenduak 31, astelehena

08:00etan, Lamiño Kirol Klubak antolatuta Siskiño eta Oketara

mendi urtekerea. Autobusa debalde izango da. Langostinoak, txanpana eta saldea egongo dira.

### Urtailak 3, eguena

20:00etan, Ramon Escalek zuzendutako Arteta Gospel Choir taldearen gospel kontzertua eleizan.



### Urtilak 5, zapatua

18:00etan, Erregenetakoko kabalgatea. Karpon hasita eguraldi ona egin ezker, ostean plazan.

## Artea

### Abenduak 24, astelehena

17:30etan, Olentzerori ondo etorria plazan.

### Abenduak 28, barikua

20:30etan, Black Floid taldearen kontzertua Herriko Bentan. Jon Andoni Perez, Eduardo Basterra "Baster", Iyes Loirent.



### Abenduak 29, zapatua

18:00etan, orientazio lasterketa eta azkari herrikoia. Plazan; 19:30ean, Gabon kantak. Plazan. Ekintzok, Arteako Udalak, Herriko Bentak, Arteako Andrak, Jabe-kuntza Eskoleak, Jubiladuen alkarteak, Guraso Elkarreak eta AKKT-antolatuta ditue.

## Bedia

### Abenduak 18, martitzena

19:00etan, Arratiako Musika Eskolea eta Lemoako Andra Mari Abesbatzaren kontzertua eleizan.

### Abenduak 22, zapatua


17:00etatik 18:30era, Gabonetako apaingarriak sortzeako tailerra ludotekan; 18:30etik 19:30era, Gabonetako apaingarriak herriatik ipini eta Gabon kantak; 19:30ean, plazan txokolata.

### Abenduak 24, astelehena

09:30etan, Olentzero. Plazan hasita auzorik auzo kantuan; 13:30etan, Olentzero plazara helduko da umeak egoteko. Gaztainak erreak jaten itxarongo dabe.

### Abenduak 26, eguaztena

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Gabonetako parkea frontoian.



### Abenduak 28, barikua

16:00etan, urtekerea Arriaga Antzokira. *PinotXXI*o jantza ikuskizuna.

### Urtilak 2, eguaztena

17:00etan, *Richard zikoina* filma ludotekan.

### Urtilak 3, eguena

10:00etatik 19:00etara, urteke-rea GUPera. Bazkaria eta merienda eroan behar dira.

### Urtilak 5, zapatua

18:30ean, Erregenetakoko kabalgatea. Aurretik txokolata bananduko da.


## Dima

### Abenduak 24, astelehena

11:30ean, Olentzerori harrerea. Eskolan batu eta herriatik zehar kantetan. Amaieran, mezua frontoi txikian.

### Abenduak 29, zapatua

Beinke jai solidarioa. 16:00etan, jaiaren hasikerea, Dimesten eta photocall-a; 17:00etan, herri kirol desafio mundiala: Areatza, Dima eta Zeanuri; 19:00etan, Beinke kantuan; 21:30ean herri afaria.



## Igorre

### Abenduak 19, eguaztena

19:00etan, *Musikatu bizitza!* Arratiako Musika Eskolearen kontzertua Lasarte Aretoan.

### Abenduak 21, barikua

18:00etan, *Gau magikoa: Kai, Mai, Koa* Gontzal Mendibil eta Easo Txiki Abesbatzaren ikuskizuna Lasarte Aretoan.



### Abenduak 22, zapatua

18:00etan, Arantzaren jantza saioa Lasarte Aretoan.

22:30ean, Sua eta Belako taldeen kontzertua Kiñu Gaztetxean.

### Abenduak 24, astelehena

12:00etan, Mikeletik hasita Badator Olentzero (baserriarrez jantzi-ta joan).

### Abenduak 26, eguaztena

11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea. Zaztaparrakentailerrak aterpean. 20:00etan, *Yllanaren onena* ikuskizuna Lasarte Aretoan.

### Abenduak 27, eguena

19:00etan, Irudibertsotan, bertso eta marrazki ikuskizuna. Lasarte Aretoan. Arratiako Bertso Eskolea.

### Abenduak 28, barikua

17:00etan, jostailu azokea Kultur Etxean. Zaztaparrak eta Maraturen eskutik.

20:15ean, Jose Kruz Gurrutxaga eta Susana Soletoren bakarriketak. Ostean Gabonetako hiru otzaren zozketea. AMEk antolatuta.

### Abenduak 29, zapatua

19:30etan, Gabonetako kontzertua, Luis Iruarizaga Abesbatza eta Garazarko Matsorriak Lasarte Aretoan.

### Abenduak 30, domekea

17:00etan, umeentzako zinea *Superlopez* filma; 19:30etan, *Dogman* Lasarte Aretoan.

### Abenduak 31, astelehena

11:00etan, IX. San Silbestre Lasterketan izen emotea; 11:30etan, hasikerea. Mozorrotuta joan.

### Urtilak 3, eguena

11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea. Motxoganen tailerrak aterpean.

19:30etan, Areatzako Bandaren kontzertua Lasarte Aretoan.

### Urtilak 4, barikua

16:30ean eta 18:30ean, *Pinotxo* umeentzako antzezlan (saio bi) Lasarte Aretoan.

### Urtilak 5, zapatua

18:30etan, Erregenetakoko kabalgatea Mandoia kaletik hasita.

## Lemoa

### Abenduak 20, eguena

10:00etan, Gaztaina Eguna esko-





# BEA ILARDIA

EH Bilduren Bizkaiko ahaldun nagusigaia

Urte berri,  
Bizkaia berri.

*Bea Ilardia*

**ehbildu**



lan. Ume eta gurasoentzat. JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta.

#### Abenduak 21, barikua

10:30ean, Olentzero eta Mari Domingi eskolatik udaletxera. JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta. 18:00etan, disko festa ludotekan.

#### Abenduak 22, zapatua

19:30ean, trikipotea Oxabiko lagunakaz. Batzokitik hasita.

#### Abenduak 23, domekea

10:00etan, urtekerea bizikletan. Arlonagusiako kantxatik. Lemoa

Txirrindulari Elkartek antolatuta.

#### Abenduak 24, astelehena

11:00etan, udaletxean Olentzero eguna; 18:30ean, Olentzero Gaztetxean.

#### Abenduak 25, martitzena

08:00retan, eskoletatik urtenda mendi urtekerea Urkiola-Anboto (1.331 m.). 08:30ean, Urkiolako goiko aparkalekuan. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta.

#### Abenduak 26, eguztena

Olentzeroren Etxera urtekerea.

2011 eta 2014 urteen artean jaiotakoentzat.

#### Abenduak 27, eguena

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Lemoako Haur Parkea kiroldegian. 20:30ean, Galder Perezen *Morbus operandi* antzezlan. Antzezleak: Aiora Sedano eta Ane Zabala. Karabie Gaztetxean.

#### Abenduak 28, barikua

19:30ean, Lemoako Abesbatzaren Gabonetako kontzertua. Andra Mari eleizan.

18:30ean, Txatxamurke Egune Karabie Gaztetxean. Gauean Larregi taldearen kontzertua.

#### Abenduak 30, domekea

10:00etan, urtekerea bizikletan. Arlonagusiako kantxatik. Lemoa Txirrindulari Elkartek antolatuta.

#### Abenduak 31, astelehena

10:30ean, Harriketarren urteroko futbol partidua eta beisbolito; 24:00etan, gau erdiko jaiak Karabie Gaztetxean.

12:30ean, Lemoako Gabonetako VIII. Lasterketea. Eneko Zamalloa Memoriala. Elizondon.

#### Urtailek 2, eguztena

19:00etan, errefujiaduen harrera esperientzien trukaketea. Lemoa harrera herria izateko eta Karabie Gaztetxea harrera gune bihurtzeko egin daitekenaren gaineko eztabaida. Artea, Arrigorriaga, Usansolo, Zierbena, Karmela eta Harrobi Fundazioetik hurreratuko dira norbanako eta esperientzia kolektiboak kontetan. Karabie Gaztetxean.

#### Urtailek 3, eguena

20:00etan, Pintxo Lehiaketea Gaztetxean.

#### Urtailek 4, barikua

20:00etan, *Koktail* tailerra Gaztetxean.

#### Urtailek 5, zapatua

23:00etatik aurrera, Stankeik taldearen kontzertua Gaztetxean.

## Ubide

#### Abenduak 24, astelehena

19:00etan, Olentzero.



## Zeanuri

#### Abenduak 22, zapatua

19:30ean, txistularien 50. urteurrena "Akaberea da-ta, ibili kontuen", Bilboko Udal Txistulari Bandak eta Zeanuriko abesbatzak lagunduta.

#### Abenduak 23, domekea

18:30ean, *S(u/a)minetik bakera* ikus-entzunezkoa. Sandra Carrasco eta Olatz Etxaberen dolutik bakera bidea. Naia Egiluz eta Koldo Rodriguez narratzaile lanetan. Kultur Etxean.

#### Abenduak 24, astelehena

12:00etan, plazea apaindu; 17:30ean, Olentzero eta Mari

Domingiren etorrerea, plazan. Baserritar jantzita joan.

#### Abenduak 26, eguztena

18:30ean, Jakoba Errekondoren 2019ko liburu barria eta ilargiaren egutegiaren aurkezpena. Kultur Etxean.

#### Abenduak 27, eguena

18:30ean, Alvaro Rabelliren *Ustezko fikzioak* liburuaren aurkezpena, Luis Valenciagaren musikeak lagunduta eta Carlos Torrerren irudiak. Kultur Etxean.

#### Abenduak 28, barikua

16:30ean, euskal artzain txakurrak lanean, plazan; 18:30ean, Eukeni Arriortuak zuzendutako *Pastoreak* dokumentala. Jon Etxebarria eta Puy Arrietaren bizi-penak. Kultur Etxean. Jarraian, Argazki Txapelketako sari banaketea.

#### Abenduak 30, domekea

18:30ean, Hika Teatroaren *Sagartu*, jantza, antzerki eta kantu emonaldia frontoian.

#### Abenduak 31, astelehena

11:00etan, San Silbestre lasterketea. Ondoren, saldea, taloa... Atoan Joko Alairen laguntzeagaz.

#### Urtailek 2, eguztena

18:30ean, esku pelotearen gaineko mahai-ingurua Kultur Etxean.

#### Urtailek 3, eguena

Ume eta gurasoentzako Donostiara egun guztiko urtekerea.

## Zeberio

#### Abenduak 21, barikua

19:30ean, ballet erakustaldia frontoian.

## HARRIKETARRAK

Karabie Gaztetxea    Lemoan    Dana dolaianik

**HAMABOSTALDI KULTURALA**

Abenduak 24tik Urtarrilak 6ra

<p><b>24 18.30</b></p> <p>Olentzero</p>	<p><b>27 20.30</b></p> <p>Antzezlan</p>	<p><b>28 18.30</b></p> <p><b>TXATXAMURKE EGUNE</b></p> <p><b>LARREGI</b></p> <p>kontzertua</p>
<p><b>30 Iluntzean</b></p> <p><b>UZTAJAA + KORTO EMANALDIE</b></p>	<p><b>31 10.30</b></p> <p>Futbol Partidue eta Beisbolito</p> <p><b>GAU ERDIEN</b></p> <p>Ondo etorri 2019 JAIA</p>	<p><b>2 19.00</b></p> <p><b>Harrera esperientzien trukaketa</b></p> <p>Zer, zelan egin dezakegu Lemoan, norbanakoak, gaztetxean Harrera Herria bihurtzeko?</p>
<p><b>3 20.00</b></p> <p><b>Pintxo Lehiaketa</b></p>	<p><b>4 20.00</b></p> <p><b>Koktail Tailerra</b></p>	<p><b>5 23.00</b></p> <p><b>STANKEIK</b></p>

**Abenduak 29, urtarrilak 1 eta 6 GARBIKETAK GAZTETXEAN!**

www.harriketarrakblog.wordpress.com

Ospakizun urtea hastear Karabien!

Adi!

# ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA



**Abenduak 23, domekea**

12:00etan, umeen eskupelota partiduak frontoian.

19:00etan, musika entzunaldia: The Gospel Six, Ermitabarriko San Antonio ermitan.

**Abenduak 24, astelehena**

17:30ean, Olentzeroren etorrea. Ermitabarritik plazara. Ostean txokolatea egongo da.

**Abenduak 26, eguaztena**

Etxazo auzoko jaiak. 12:00etan, San Esteban ermitan mezea. Ostean, herri-kirolak eta barauskarria.

**Abenduak 27, eguena**

11:30ean, Zeberiora bisita gidatua. Errementarien museoa, Olabarrietako Santo Tomas... Izena [www.zeberio.net](http://www.zeberio.net) edo [www.gorbeiaeusyadi.com](http://www.gorbeiaeusyadi.com)-en emon behar da.

**Abenduak 28, barikua**

17:00etan, bola jaurtiketea eta taloak Ermitabarrin (umeak); 18:00etan, nagusiak; 20:30ean, taloak eta txokolatea.

**Abenduak 29, zapatua**

12:00etan, Santo Tomas Zaharra ermitan, mezea eta barauskarria.

**Abenduak 31, astelehena**

10:00etan, mendi urtekerea Ton-torrandira. Plazan. Ekintzok, Zeberioko Udalak antolatatu ditu Austarri Mendi Taldea, Austarri Korta Kultur Elkartea, Gure Indarra Jubilatuen eta Pensionisten Elkartea, Iturripe Kultur eta Kirol Elkartea eta Txubelasu Guraso Elkartearen laguntzeagaz.



# GABON ZORIONTSUAK eta URTE BARRI ON!

## 2019

**IGORRE**  
Danon herria  
Danon aukera



**ARTEAKO UDALA**  
**USTRUKUE GUNEAREN LEHIAKETA PUBLIKOA**  
Kolore guztiak ditugu maiteak

**15 urterako esleipena**

**Bete beharrekoak:**

**Taberna eta jatetxearen kudeketea aurrera eratea**  
**Oilaskoteria izandakoa berreskuratzea uda garaian**  
**600 eurotik aurrerako alokairua hilean. Lehenengo urtean debalde**

- Proiektuak aurkezteko atzen eguna 2019ko urtailaren 3a izango da
- Pliegoak [www.artea-udala.org](http://www.artea-udala.org) helbidean dagoz



## MENDIA

# Alex Txikonek K2ra igoteko saiakerea egingo dau neguan

Txikonek proiektu barri bat dauka abian eta, barrero be, Himalaia eta negua izango dira protagonistak. Lemoztarrak K2 gailurra egiteko saiakerea egingo dau eta lortu ezker, neguan K2 igoten lehen alpinistea izango da.

K2 (8.611 m.) munduko bigarren mendirik altuena da eta teknikoki gaxena Annapurna eta Nanga Parbat gaz batera. Horregaitik, eta heriotzen batez bestekoagaitik (%20) "mendi basatia" lez da ezaguna.

**Miren Madariaga**

Espedizioa urtailaren 2an urtengo da Karakorum mendilerorantz eta gailurra egiten Pakistan aldetik saiatuko da. 2019ko martira arte iraungo dauan proiektuan Alex Txikonek, 10 kideko taldeagaz batera, lehen neguko igoeraren saiakerea bere horretan sentidu eta egin gura dau. Ez edozelan, gainera, lemoztarrak inoz erabili ez dan teknologia eta sekula egin ez diran esperimendu zientifikoak izango ditu espedizio aurrerari honen berbabide.

Azken hiru urteetan Himalaiara hiru neguko espedizio egin ditu, bat Nanga Parbatera eta beste biak Everestera. Horreetan metatutako esperientzia hartuta lemoztarra K2ra idea barriakaz joango da; ohiko kanpin dendak jarri beharrean igluak eregiteko idea da nabarmenena.

Igluak 5.000 metrora eregiteko asmoa dauka, oinarritzko kanpamentua jartzea aurreikusitako lekuan. Holan, Txikonen arabera, espedizinoak kideak tenperatura hotzak (-30°) eta haize boladak (100 km/h) hobeto jasan ahalko dabez, "iglu barruan 0 gradura egon geinke eta tenperatura positiboak be lortu ahal izango doguz kandela batzuen laguntzeagaz".

Txikonek proiektu barri hau ilusino handiz hartu dau "lortu daiteken erronka bat dala pentsetan dot. 4. kanpalekura heldutea egingarria da eta, handik, gailurrera igoteko baldintzak zeintzuk diran aztertuko do-



Alex Txikon eta espedizinoak.

guz". Abentura barri hau be errespetu handiz hartuko dau "bildurra hor dago, baina ez da txarra, erne eta aktibo mantentzen zaitu eta".

"WinterTopAppeal by Alex Txikon" izentautako proiektu honek bi ikerketa zientifikoren alkarlana izango dau: bata, diziplinartekoa izango da, aldaketa klimatikoak Baltoro glaziarren dauan eraginari

buruzkoa. Balelur izeneko proiektua da, Basque centre for Climate Research (BC3) erakundearen eskutik jardungo dabe eta zientzialariak bertan parte hartuko dabe; bestea, barriz, ikerketa medikoa izango da, K2-Xtreme Genetics Project. Neguko muturreko espedizinoetan oxigeno faltea eragiten daben faktoreak aztertuko dituan

ikerketa aitzindaria da.

Teknologiari puntakoena be giltzarri izango da erronka honetan, komunikazioen bitartez (irratia eta satelitea hedabide eta jarraitzaileak hartu-emonetan egoteko), geolokalizazioa (Alexen bidearen zuzeneko jarraipena egiteko) eta dronak (bideoa grabetako eta Baltoroko glaziarren egoera aztertzeko). Gainera, Euskal Herriko Deustuko eta Mondragoiko unibersidadeakaz batera, mendiko erreskaterako aparatu barri bat diseinetan dabiz. Altueria eta eguraldiaren xehetasun guztiak emongo ditu aparatuak eta muturreko egoere-

tan proban ipiniko dau taldeak.

Amaituteko, Baltistan fundazioaren eta Cofares taldearen eskutik, medikuntzarako ezinbesteko materiala eroango dau espedizinoak Pakistanera; baita elikagaiak be. Solarpack eta Cegasari esker energia sorgailuak be eroango dabez Baltoroko eskualdera. Bestalde, proiektu sozial honen baitan espedizinoaren parte zirujau ginekologoa dan medikua be badago. Horrek enbajadore gisa jardungo dau; izan be, bertako mediku eta erizainai heziketa emongo deuse, andra zein umeai laguntzea eta haurdun dagozanai arreta berezia eta espezializaua eskainiz.

## LASTO BOTATZE

## Hamairugarrena be Tubirentzat

**Erredakzioa**

Abenduaren 8an jokaturako Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketan Jose Martin Bustinza "Tubi" dimoztarra izan zan txapeladuna, 6 metro eta 40 zentimetroko langa gaindituta. Txapelketea antolatu

dan hamahirugarren edizinoan izan da aurtengoa eta hamahiruak irabazi ditu Tubik.

Zortzi kirolari neurtu ziran Dimako frontoian, baina hamabi kiloko lasto-fardoan altuera handienera jaurti ebana, Gipuzkoa ordezkatzeko joan Tubi izan zan. Bigarren Andde Arbenoizek egin eban, 5 metro eta 70 zentimetroko markeagaz eta hirugarren Mikel Agirrek, lasto fardoak 5 metro eta 30 zentimetroko altueria gaindituta.



Orrebiako Herri Lastotokoa

# Gure

irastetxeak

Euskalduna  
kalidadezkoa  
herrikoa

**JB Eguzkiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Dima

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Artea

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

**I. Zubizarreta HLHI**  
Tel.: 94 673 60 22 Igorre





## ZIKLO-KROSA

# Javier Ruiz de Larrinagak eta Luisa Ibarrolak irabazi eben Igorreko Ziklo-krosa



Luisa Ibarrola goian eta Javier Ruiz de Larrinaga behean.

### Erredakzioa

Igorreko Ziklo-kroseko Elite mailako gizonen podiumera, Javier Ruiz de Larrinaga, Aitor Hernandez eta Jon Munitxa igon ziran. Andrazkoen artean, Luisa Ibarrola izan zan azkarrena eta Olatz Odriozolak eta Paula Suarezek osatu eben podiuma.

Lehia estua egon zan lehenengo bien artean gizonen Eliteko lasterketan, baina buelta bi falta ziranean, bizkaitarrak laban egin eban eta arabarrak lortu eban txapela. Andrazkoen lasterketan barriz, Luisa Ibarrola erraz nagusitu zan, bigarrenari minutu bat eta sei se-

gundo aterata. Eguraldiak lagundu egin eban eta zirkuitua umel egon arren, ez egoan oso lupeztuta.

### Beste kategoriak

Junior gizonen podiuma, Miguel Sanchezek, Ibai Ruiz de Arcautek eta Iñaki Guarestik osatu eben; andrazkoena, Amaia Lartitegik, Nahia Erañak eta Maria Arbeloak. Kadete mutiletan, Diego Ruiz de Arcaute igon zan maila gorenera eta Aimar Erostarbek eta Ander Altunak egin eben bigarren eta hirugarren. Maila bereko nesken podiuma barriz, Maria Modenesek, Lukene Trujillanok eta Xana Ruizek osatu eben.

## PELOTEA

# Dimako Amaia Aldayk jantzi dau Emakume Master Cupeko txapela

Erraz nagusitu jakon Amaia Alday Oihana Orbegozori Emakume Master Cupeko lau t'erdiko finalean, 8-22 irabazita. Finala, abenduaren 9an jokatu zan, Azkoitiko Gurea pelotalekuan. Alday Promozino mailako txapelketa izan zan eta Lehen mailakoa Patri Espinar. Txapelketea irabazita, datorren urtean lehen mailan jokatu dau dimoztarrak.

### Erredakzioa

Amaia Aldayk 18 urte baino ez dituan arren, maila handia erakutsi dau Master Cup Txapelketa guztian zehar. Finalean, hasikeratik aurreratu zan markagailuan Alday. Oihana Orbegozok baino askoz gehiago gozatu eban pelotea eta dimoztarraren aurkariak 8 tanto baino ezin izan ebazan egin.

Alday Arratia Futbol Taldeko jokalaria be bada. Denporaldi honetan, Arratia Euskal Ligan dago, goiera postuan, liderra da-eta.

### Lehenengo aldia izan da Emakume Master Cup Txapelketea jokatu dozuna eta irabazi.

Bai. Promozino mailan apuntatu nintzan probetako. Hasikerako partiduak uste baino errazagoak izan ziran. Oso erraz irabazi nebazan. Aurrera egin ahala, urduritasuna handitzen joan zan eta gogorragoak ziran partiduak. Ez neban espero lehenengo urtean finalera heltzea eta oindino gixiagi irabaztea. Baina finala be espero baino errazago irabazi neban. Orbegozok presino handia eukan etxetik hur jokutzen ebalako. Polita izan da txapelketea.

### Noz eta non hasi ziran pelotan?

Dimako Txumulueta Pelota Eskolan hasi nintzan. Txikitan lagunakaz frontoian jokutzen neban eta pelota eskolan hasi eta urtebete egon nintzan. Oso gustura nengoan baina Arratiak neska taldea egingo ebala eta futboleant apuntatu nintzan. Baina lehenengo urtetik Imanol Agirre hasi jatan esku pelotara bueltetako esaten. Eta bueltau nintzan barriz eta Emakume Master Cup Txapelketea jokatu dot. Eta irabazi.


### Txapelketa honek argi itxi dau, uste baino neska gehiagok jokatu dabela esku pelotan. Ikusiezin ziran baina argitara atera ditu.

Hasi nintzanean hiruzpalau neska izaten ginan txapelketetan, eta harritu egin nau txapelketa honetan hainbeste egoteak, 96 guztira kategoria bietan. Ez neban espero hainbeste izango ginanik, eta gainera uste dot gero eta gehiago izango garala.

### Arratia Futbol Taldeko jokalaria be bazara. Noztik?

Oin dala lau edo bost urte. Txikitan be egon nintzan eta urte batzuk taldean jokatu barik barriz bueltau nintzan oin dala bost urte inguru.

### Liderra da Arratia Euskal Ligan eta Bigarren Mailara igoteko aukerak baditu.



Amaia Alday txapelagaz.

Bai, 2016-2017 denporaldian, Bigarren Mailan jokatu genduan. Bajatu egin ginan, baina oin lehenengo postuan gagoz eta burrukan barriri igoteko.

### Aukeratzekotan zein aukeratu zeunke futbola ala pelotea? Ze hain maila altuetan biak mantendutea gaxa izango da.

Ez dakit zein aukeratu ko neukan. Biak gustetan jataz. Futboleant urte gehiago daroadaz eta taldean jokatzeko politagoa da. Biak batera egiterik dodan bitartean, bietan jokatu dot.

### Zenbat entrenau izan dozu kirol baktoketan?

Futboleant hiru entrenamentu gehi partidua izaten dodaz astean, eta esku pelotan oin arte astean bi izan dira.

### Datorren urtera begira zeintzuk dira zure planak?

Hasteko futboleant jarraitutea eta espero dot mailaz igotea eta esku pelotan oin lehen mailan jokatu behar dot lau t'erdian. Maila horretan partidu kopurua txikiagoa da, jokalaria gixiagi dagozako, baina exigentzia askoz altuagoa izango da. Gehiago entrenau beharko dot seguruenik.

**ZURE ZERBITZURA**

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre  
www.aviaenergias.es

**GURE BIHOTZA**

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan





## LIBURUA

**Alvaro Rabelli idazlearen *Ustezko fikzioak* liburua aton kalean**

argitalpenetan agertu izan dira atzen urteotan (Pergola, BEGITU, Rumble, Berria) oin antologia moduan Zertu Kultur Elkarteak argitaratu dau Zeanuriko Udalarren laguntzeagaz. Liburu honetan be Jose Carlos Torre komikigile eta ilustratzaile getxoztarrak parte hartu dau. Bereak dira hainbat ipuin apaintzen daben *collage* irudiak. Begitu-lagunak etxean jasoko dabe.

Irakurleak iturri askotako testuak topauko ditu Rabelliren liburuan: tradiziozko ipuinen oihartzuna dakarren errelatoak, lagunai lotsa barik ostutako biografiak, albiste fikzionauak, mezu elektronikoak, komiki gidioak, alkarrizketak, beste egile batzuen ipuinen moldapen eta laburpenak. Hego Amerika eta Ekialde urruneko literaturaren lorratzak nabarmenak dira testuotan. Irakurleak arreta handia ipini beharko deutse eszena txiki

honeen detaile txikiak, istorioaren tolesdurari, amaierai, berba eta esaldi errepikatuai, paradoxai... Horreexek diralako Rabellik bere liburuan landu dauan generoaren ezaugarri nagusiak. Idazkera axolagabea gura izan dau izan batzuetan, hiztegiak ez diran epitetoak erabiliz, prosaiko samarra, baina beti adierazkorra. Besteetan, barriz, olerkigintzari be lapurtutako lerrokadak topauko ditu irakurleak. Ez dago gai bakarra. Esan geinke testuok ironia, kritika eta batzuetan egunerokotasunak dakarran asperduran oinarritzen dirala.

Liburua Zeanuriko Kultur Etxean aurkeztuko da abenduaren 27an, arrastiko 18:30ean, aste kulturaren barruko ekitaldien artean. Bertan Torreren irudien erakusketea izango da, eta liburuko hainbat ipuinen irakurraldia be egingo da.

**Erredakzioa**

*Ustezko fikzioak* izena dauka Zeanuriko Alvaro Rabelli idazlearen atzen errelato bildumeak. Bertan berrogeta hemeretzi errelato labur jaso ditu. Testuok bestelako

## KONTZERTUAK

**Belako eta Sua taldeak kontzertua emongo dabe Igorreko Kiñu Gaztetxean****ABENDUAK 22**

IGORRE | KIÑU GZTX | 22:30

9€

**Erredakzioa**

Abenduaren 22an, Belako eta Sua taldeak kontzertua eskainiko dabe Igorreko Kiñu Gaztetxean. Jaialdiak, gaueko 21:30ean zabalduko ditu ateak eta ordu bete beranduago hasiko da emonkizuna.

Kontzerturako sarrerak be deratzi euroko prezioan erosi daitezke, Igorreko Axular Herriko Tabernan, Kukuma tabernan, Gau Lora akeitegian eta Txaparro jatetxean. Baita [www.ticketea.com](http://www.ticketea.com) webgunean be.

**Belako eta Sua**

Belako 2011n Mungian sortutako post-punk taldea da eta euskerazko abesti batzuk euki arren, kanta gehienak ingelesez kantetan ditue. Euren diskografia *Eurie* (2013), *Hamen* (2016) eta *Render Me Numb, Trivial Violence* (2018) lanak osotuten dabe. Josu Ximun Billelabeitia (gitarra eta ahotsa), Lore Nekane Billelabeitia (bajua eta ahotsa), Lander Zalakain (bateria eta ahotsa) eta Cris Lizarraga (tekladua eta ahotsa) dira taldeko partaideak.

Egun horretan Kiñu Gaztetxean be joko dauan Sua taldeak, bere burua influentzia argirik baktzat definiduten dau. Izan be, inprobisazioan oinarritzen dira eta molderik bako musikea sortzean dabe. Taldekoak, abesti lasai eta sakonetik, bizienetara pasetan dira, abesti baktotxa esperientzia bat bihurtuz.

## ANTZEZLANA

**Umorea Yllanaren eskutik Igorreko Lasarte Aretoan****Erredakzioa**

Yllanak, *Yllanaren onena* ikuskizuna eskainiko dau abenduaren 26an, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan.

Ikuskizun honek taldeak oin arte sortu dituan ikuskizunetako momentu handi guztiak eta *sketch* onenak biltzean ditu. Barrez lehertzeko modukoa da eta ikusleai aukera emongo deusie mende laurdeneko ibilbidean asmatu dabezan *gag* dibertigarrienez gozatzeko. Umorea eta

absurdoa neurri handietan eskaintzen ditu, grazia, sormena, irudimena eta talentuagaz batera; barre eginarazoteko artea omentzen dau ia barbarik esan barik.

Yllana 1991n osotu eben, keinue bidezko umorea lantzean eban talde legez, nahiz eta gaur bestelango beharrak be egiten dabezan arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen alorretan.

Ikuskizun honetako antzezleak Fidel Fernández, Juan Ramos, Luis Cao, Juanfran Dorado eta Jony Elias dira.

## IRUDIBERTSOTAN

**Miren Amuriza, Jone Uria, Sustrai Colina eta Jon Maia bertsolariak Igorren****Illart Gumuzio**

Abenduaren 27an, eguenean, arrastiko 19:00etan, Miren Amuriza, Jone Uria, Sustrai Colina eta Jon Maia bertsolariak egongo dira Igorreko Lasarte Aretoan, Arratiako Bertso Eskolak antolatutako Irudibertsotan ikuskizuna eskaintzeko.

Miren Amurizak eta Jone Uriak, Onintza Enbeitak irabazi eban Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean parte hartu eben abenduaren 15ean Miribillako Bilbao Arenan. Uriak laugarren egin eban eta Amurizak seigarren.

Irudibertsotan, bertsolaritza eta marrazkigintza buztartzen dituan ikuskizuna da eta badira urte batzuk Igorreko Gabonetako egitarauaren barruan egiten dala.



Bertan, gai jartzaileak gaia emon eta bertsolariak abestu ahala, marrazkigileak irudiak egiten ditu.



## IKUSKIZUNA

# Gontzal Mendibilek musikala estrenau dau Bilboko Arriaga Antzokian

Igorren be ikusteko aukerea egongo da abenduaren 21ean, Gau magikoa: Kai, Mai, Koa izeneko ikuskizun musikala.

### Erredakzioa

Zuzeneko antzerkia, musika eta kantuak entzuteaz gainera, magia sano presente dago Txan Magoaren kolaborazioa be badaukan ikuskizun honetan. Gidoia eta kantu guztiak Gontzal Mendibilek berak sortutakoak dira eta aktore lanak be egiten ditu ikuskizunean, maisuaren papelean. Fantasia eta ilusinoz betetako familia osorako ikuskizuna dala dino egileak.

Oin dala urte batzuk sortu eban Zeanuriko kantariak *Gau magikoa* ipuina eta hortik atera dau gidoia.

Gero istorioa kontetan daben kantu guztiak sortu eta hori taularatzeko lanari ekin eutsan.

Ipuin honen protagonistak dira Kai, Mai eta Koa umeak eta Gontzal Mendibil maisu papelean. Añamendiren magalean dagoan Aran herriko eskolan hasten da istorioa Gabon bezperetan. Kai eta Koa eskolan geratuko dira, maisuak zigortuta, ikaskideak eta maisua Gabon errondan joan bitartean. Kaik eta Koak liburu magiko bat hartu eta abentura ederrak bizi izango ditue personaje mitikoen bila.

"Ordubete pasatxo irauten dau

ikuskitzen eta %90a musika da" azaldu deutso BEGITURI Gontzal Mendibilek. Musika, antzerkia, magia... "Irudiak 3 dimensinokoak dira, *mapping* dalakoa. Hiru proiektore daroaguz eta teknikoki inoz egin dodan gauzarik gaxena da".

Esenalekuan 14 ume eta 7 nagusik kontetan dabe Gabonetako ipuin musikala hau. Umeak Donostiako Easo umeen abesbatzakoak dira eta nagusiak, batez be Gontzal Mendibilek lehendik lan egindako aktore profesionalak edo esperientziadunak gehienak. Entseguak Donostian eta Igorren egin ditue; Laboral Kutxarako aurre-estrenoa bariz, Igorreko Lasarte Aretoan.

### Fantasia eta ilusinoia

Euskeraz umeentzako musikala giti egozala ikusita, premia hori bete-teko ekin eutsan Zeanurikoak hau idazteari, eta argudioak helduen eta umeen arteko dikotomia planteetan dauala dino. "Maisuak eta umeak magian sinistuten dabe, baina beste nagusiak ez". Ikuskizunari hasikerea Txan magoak emoten deutso; magoak magia egiten dau eta gero teloa igon eta ipuina hasten da. "Dana irudi eta kantu bidez. Amaitzen danean, bis-a be oso polita da".

Publikoaren parte hartzea be bilatu dau egileak. "Kantu erraz batzuk egin dodaz, jentek parte hartzeako eta ikastola batzuetara



Gontzal Mendibil.

joan naz umeai kantuak irakasten". Dana dala, ikuskizuna ez da umeentzako bakarrik, familia osoarentzat baina. Fantasia eta ilusinoia, eta amets egiteak merezidu daualako mezua zabaldu gura dau. Izan be, Gau magikoaren goiburua edo leloa *bihotzez, gogoz eta arimaz eskatzen badituzu ametsak, ametsak egi bihurtuko zaizkizu* da.

### Hurrengo zitak

Abenduaren 15ean estrenau zan *Gau magikoa* Bilboko Arriaga Antzokian. Han lau emonaldi egin eta gero, zapatuan bi eta domekan beste bi, Igorreko Lasarte Aretoan egongo da hilaren 21ean, 18:00etan. Ondoren, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian beste emonaldi bi egingo ditue abenduaren 26an, bata 17:00etan, eta bestea 19:30ean.

Urtilaren 2an, Zornotza Aretoan egongo da *Gau magikoa*; hurrengo egunean Iruñako Gayarre Antzokian eta hurrengoan Azkoitiako Baztartxo Antzokian.

## ABESBATZAK

# Luis Iruarrizaga Abesbatzaren Gabonetako kontzertua Igorren

### Erredakzioa

Gabonetako programazioaren barruan, Luis Iruarrizaga Abesbatzaren kontzertua eskainiko dau Igorreko Lasarte Aretoan, hilaren 29an, 19:30ean. Eurakaz, Begoñako Garaizarko Matsorriak Abesbatza egongo da.

Igorrekoak, Miren Zubietaren zuzendaritzapean, batez be Euskal Herriko Gabon kantak eskainiko ditue; Aita Donostiaren *Oi Bethleem* edo Ruperto Iruarrizagaren *O Eguberri gaua*, berbarako. Deustukoak be euskal Gabon kantetan oinarritutako erreperitorioa eskainiko dabe.

### Soprano eta tenore bila

Luis Iruarrizaga Abesbatzaren hainbat tesituratuko ahotsak behar ditu: sopranoak, kontraltoak, tenoreak eta bajoak, hain zuzen be, eta jente bila dabil. Entseguak eguazten eta egugetan izaten dira, 20:00etan, Igorreko Kultur Etxean.



### Gau magikoa: Kai, Mai, Koa

**Gidoia eta musika sorkuntza:** Gontzal Mendibil.

**Zuzendaritza:** Gontzal Mendibil.

**Eszena zuzendaritza:** Estitxu Zaldia eta Juanjo Herrero.

**Easo umeen abesbatzaren zuzendaritza:** Gorka Miranda.

**Txan magoa:** Xanti Antero.

**3D eta eszenografia irudiak:** Koldo Belloso, bit arTek.

**Konponketa musikalak:** Jose Luis Canal eta Alberto Rodriguez.

**Soinu teknikaria:** Jean Phocas.

**Gehitutako moldakuntza musikalak:** Jose Luis Canal.

**Janzkera eta atrezzoak:** Maxima Gutierrez.

**Diseinua eta maketazioa:** Moriwase.

**Ekoizpena:** Tori Produzioak eta Bapo Bapo Produzioak.

**Antzezleak eta kantariak:** Donostiako Easo Abesbatzako umeak.

**Maisuak:** Gontzal Mendibil.

**Olentzero:** Gorka Miranda.

**Gurasoak:** Igor Sagarsazu, Alfonso Diez eta Eva Merlo.

**Alkatea:** Samuel Gibert.

**Epailea:** Felix Garcia.

**Figurazioa:** Shabani Aranzabe eta Josune Azurmendi.

## DUNBA

# Unai Etxeberria: "Ez neban asko balio pilotoa izateko, eta gustetan jatan kopiloto izatea"

Unai Etxeberria Arteako 3. zikloko gelara etorri zan Rallyai buruz berba egiten, bera Rally kopilotoa dalako. Unai eibartarra da baina Igorren bizi da.

### Arteako eskolako 3. zikloko ikasleak

**Lehenengo lasterketan bildurra zenduan istripua eukiteko?** Hasieran gazteak ginanez ez genduan bildurrik eukiten baina oin apur bat gehiago. Normalean nahiko seguru zoaz.

**Zenbat km/h hartzean dozue**

### lasterketa baten?

Nik, gehienez, 190km/h edo harrrapatu dodaz.

**Noz hasi zinan kopiloto izaten?** 19 urteagaz, oin dala 15 urte edo gehiago.

**Noz, non eta nogaz egin zenduan lehen lasterketa?** Josebagaz, gure kuadrilako lagun bategaz izan zan. Rally Irun lasterke-



tan parte hartu genduan, Irunen.

### Inoz euki dozu istripurik?

Lehenengoa... beharbada ni gidatzen nengoala, baina kopiloto bezala Teruelen, Rally batean izan genduan. Rallya lurrezkoa zan, Josebagaz ninoian, oin dala 15 urte, 2003an.

### Eta zeozer apurtu zenduan?

Ez. Inoz ez dot minik hartu, ezta ezer apurtu be.

### Zergaitik gura zenduan kopiloto izan?

Ez neban asko balio piloto izateko, eta gustetan jatan kopiloto izatea. Nire lagunari gustetan jakon piloto

izatea orduan ni kopiloto joaten naz.

### Zein da zure markarik onena?

Markinako Rallya irabazi neban eta gero, beste persona bategaz parte hartu nebanean, beste bi-hiru lasterketa be irabazi nebazan. Txapelketaren bat be bai.

### Inoz gidatu dozu Rally kotxe bat lasterketa baten?

Bai.

### Zenbat lasterketa egin dozuz gitxi gorabehera?

Pilo bat! Ez dakit, lehen gaztetan gehiago, oin hamar bat edo... lehen beharbada 15-20 lasterketa.



### Lasterketaren bat irabazi dozu? Zenbat?

Bat irabazi dot, Markinako, eta gero Rallysprint bat Gabirian.

### Europatik urten zara lasterketak egitera? Nora? Eta urrunen?

Frantziara joan ginan. Frantzian baina oso goian, Suitza ondoan (Frantziako lasterketako koaderna bat erakusten dau). Iñakik gura izan ebanez kanpoko Rally baten parte hartu, Frantziara joan ginan. Bi eguneko Rally bat izan zan.

### Zein da egin dozun lasterketarik luzeena? Eta zenbat km.koa?

Espania mailan ia danak dira antzekoak eta luzeena hauxe (Frantziako liburua erakusten dau).

-Eskerrik asko Unai etorteagaitik!



## AGENDEA

### ABENDUAK 18

#### BEDIA

19:00etan, Arratiako Musika Eskolea eta Lemoako Andra Mari Abesbatzaren kontzertua eleizan.

#### IGORRE

Urtilaren 18ra arte, Juan Sagastizabalen erakusketea *Bertako natura arrotza*. Kultur Etxeko Erakusketa Gelan.

### ABENDUAK 19

#### IGORRE

19:00etan, *Musikatu bizitza!* Arratiako Musika Eskolearen kontzertua Lasarte Aretoan.

### ABENDUAK 20

#### IGORRE

18:00etan, 3 eta 6 urte bitartekoentzat eta 19:00etan, 7 urtetik gorakoentzat, ipuin kontaketa musikatua, Ameli eta Xirrikituaren jostunen eskutik Kultur Etxean.

#### LEMOA

10:00etan, ume eta gurasoentzako Gaztaina Eguna eskolan. Marrazki Lehiaketako jaialdia ludotekan.

### ABENDUAK 21

#### AREATZA

Parketxeak antolatuta, Gabonetako apaingarri tailerra natura elementuakaz.

#### ARTEA

17:00etan, *Nola egiten gaituzte andrazko?* ikastaroa Kattalin Minerren eskutik Kultur Etxean.

17:30ean, Arteko Jubiladuen alkarteak antolatuta, memoria tailerra Kultur Etxean.

#### BEDIA

17:00etan, Gabonetako tailerrak: apaingarriak egin herriko leku publikoetan ipinteko ludotekan; 18:30ean, apaingarriak ipini; 19:30ean, txokolatea plazan parte hartu dabenentzat.

#### IGORRE

18:00etan, Gontzal Mendibilen *Gau magikoa: Kai, Mai, Koa* musikala Lasarte Aretoan.

#### LEMOA

10:30ean, Olentzero eta Mari Domingi eskolatik udaletxera. 18:00etan, diskofesta ludotekan.

### ABENDUAK 22

#### ARTEA

10:00etan, *Nola egiten gaituzte andrazko?* ikastaroa Kattalin Minerren eskutik Kultur Etxean.

#### DIMA

08:30ean, Dimako Zamakola jubiladuen alkarteak antolatuta, Auzuneak ezagutu mendi martxea (11,4 km.). Zamakola alkartetik urtenda.

#### IGORRE

18:00etan, Arantzarteren saioa Lasarte Aretoan.

22:30ean, Sua eta Belako taldeen kontzertua Kiñu Gaztetxean. Sarrerak 9 euroan salgai Kukuma tabernan, Axular Herriko Tabernan,

Gau Lora akeitegian eta Txaparro jatebixean.

#### LEMOA

19:30ean, trikipoteoa Oxabiko lagunak Batzokitik

#### ZEANURI

19:30ean, txistularien 50. urteurrena "Akabe-rea da-ta, ibili kontuen", Bilboko txistu bandak eta Zeanuriko abesbatzak lagunduta.

### ABENDUAK 23

#### DIMA

11:30ean, Igitie azokea; 12:30ean, tailerrak; 13:00etan, Korrokoiek taldearen kontzertua.

#### ZEANURI

18:30ean, *S(ya)minetik bakera* ikus-entzunezkoa. Sandra Carrasco eta Olatz Etxaberen dolutik bakera bidea. Naia Egiluz eta Koldo Rodriguez narratzaile lanetan. Kultur Etxean.



## Gaztetxoentzako Negulekuek antolatu ditue Arratian

Modu ludiko baten gazteak saretuteko helburuagaz, Areatza, Bedia, Dima, Igorre eta Lemoako 12 eta 16 urte bitarteko gazteak, urtilaren 3 eta 4an, egun bi alkarregaz pasau eta lagun barriak egiteko aukera izango dabe. Izan be, Institutu banaketearen ondorioz, gaxtagoa da herri batzuetakoak beste herri batzuetan lagunak egitea eta neguleku honek aukera hori emon gura deutse Arratiako gaztetxoai. Egonaldia Olaztin (Nafarroa) izango da.

#### ZEBERIO

19:00etan, musika entzunaldia: The Gospel Six, Ermitabarriko San Antonio ermitan.

### ABENDUAK 24

#### ARRATIA

Olentzero eta Mari Domingi joango dira herrietara.

### ABENDUAK 25

#### LEMOA

08:00retan, eskoletatik urtenda mendi urtekera Urkiola-Anboto (1.331 m.). 08:30ean, Urkiolako goiko aparkalekuan. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta.

### ABENDUAK 26

#### BEDIA

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Gabonetako parkea frontoian.

#### IGORRE

20:00etan, *Yllanaren onena* ikuskizuna Lasarte Aretoan.

#### LEMOA

Olentzeroren etxera urtekera 2011 eta 2014 bitartean jaiotakoentzat.

### ABENDUAK 27

#### IGORRE

19:00etan, Irudibertsotan, bertso eta marrazki ikuskizuna. Miren Amuriza, Jone Uria, Sustrai Colina eta Jon Maia. Lasarte Aretoan. Arratiako Bertso Eskoleak antolatuta.

#### ZEANURI

18:30ean, Alvaro Rabelliren *Ustezko fikzioak* liburuaren aurkezpena, Luis Valenciagaren musikeak lagunduta eta Carlos Torreren irudiak. Kultur Etxean.

### ABENDUAK 28

#### ARTEA

20:30ean, kontzertua Black Floid (Jon Andoni Perez, Eduardo Bastera "Baster", Iyes Loirent) Herriko Bentan.

#### BEDIA

16:00etan, urtekera *PinoXXlo* jantza ikuskizuna Bilboko Arriagan ikusteko. 6 urtetik gorakoentzat.

#### ZEANURI

16:30ean, euskal artzain txakurrak lanean, plazan; 18:30ean, Eukeni Arriortuak zuzendutako *Pastoreak* dokumentala. Jon Etxebarria eta Puy Arrietaren bizipenak. Kultur Etxean. Jarraian, Argazki Txapelketako sari banaketea.

### ABENDUAK 29

#### ARTEA

18:00etan, orientazio lasterketea eta herri meriendea; 19:30ean, Gabon kantak.

#### DIMA

Beinke jai solidarioa. 16:00etan, jaiaren hasikera, Dimesten eta photocall-a; 17:00etan, herri kirol desafio mundiala: Areatza, Dima eta Zeanuri; 19:00etan, Beinke kantuan; 21:30ean herri afaria.

### ABENDUAK 30

#### AREATZA

19:00etan, Areatzako Bandaren urte amaierako kontzertua. Eleizan.

#### IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Superlopez* filma; 19:30ean, *Dogman* Lasarte Aretoan.

#### ZEANURI

18:30ean, Hika Teatroaren *Sagartu*, jantza, antzerki eta kantu emonaldia frontoian.

### ABENDUAK 31

#### AREATZA

08:00retan, Lamiño Kirol Klubak antolatuta Siskiño eta Oketara mendi urtekera. Autobusa debalde izango da.

#### IGORRE

11:00etan, IX. San Silbestre Lasterketan izen emotea; 11:30ean, hasikera. Mozorrotuta joan.

#### LEMOA

12:30ean, Eneko Zamalloa Memoriala. Lemoako VIII. Gabonetako lasterketea Elizondotik.

#### ZEANURI

11:00etan, San Silbestre lasterketea. Ondoren, saldea, taloa... Atoan Joko Alairen laguntzeagaz.

#### ZEBERIO

10:00etan, Austarri Mendi Taldearen San Silbestre eguneko urtekera. Tontorrandi.

## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m<sup>2</sup>, 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

### DANERIK

#### TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot, Sol tonon balezko hobe. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

#### ETXE BILA

Arratiatik baserri-etxe bila gabizan 4 andra gara (etxerako modukoak). Alkilerrean. Interesdunak 685 707 176 zembakira deitu.

#### ALOKAIRURAKO LAGUN BILA

Dimako Egiraun auzoan leku eder baten baserri dotore eta polit baten alokairua konpartiduteko pertsonen bila gabiz. 450 euro. Ortua, tenis zelaia eta bainua hartzeak aukera. Interesdunak 607 482 499 telefonora deitu.

#### ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabizan familia gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litxakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

#### ZAINTZA LANA

Laguntzailea behar dogu edadeko andra bateri etxeko lanak eta konpainia egiteko. Interesdunak deitu 657 777 542 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Gontzal Mendibilen *Gau Magikoa: Kai, Mai, Koa* ikuskizunerako.

Marian Garai (Lemoa)  
Oihane Goioaga (Igorre)



**2** Igorreko Kiñu Gaztetxeak emondako bina sarrera Belako taldearen kontzerturako.

Jürgen Lange (Zeberio)  
Nekane Iragorri (Igorre)




**3** Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Gosebera. 2.- Konsonantea.  
Fruta bat. 3.- Idiak geldiarazoteko interjezioa. Gitxi falta. Bokala.  
4.- Umil. (Atz.) Birritan, umeen berbetan, gozoki. 5.- Absolbidu.  
6.- Laurentzioaren sinboloa. Siku.  
7.- Bokala. Hotza adierazoteko. (Atz.) Nori atzizkia. 8.- Ezkonsaria.  
Bat erromatar. 9.- Laztan, maite.

### GOITIK BEHERA

1.- Zartakoa. 2.- Konsonantea.  
Bits. Sanskritoko silaba sagradua.  
3.- Osmioa. Emea ez dana. Berba alkarketan, ate. 4.- Klasifikazino.  
5.- Euskararen Gaitasun Agiria.  
Zidarra. Astatoa. 6.- Tantaloa.  
Mesedez. Bokala. 7.- Leidu.



Topau Vaya Semanita telesailaren zazpi antzezleren abizenak.

P	O	H	I	K	A	L	O	D	A
E	K	O	D	A	S	I	K	O	S
R	E	R	O	S	O	A	L	I	A
E	I	M	A	R	R	I	L	O	N
S	G	A	L	A	R	T	Z	A	T
A	R	Z	I	G	O	R	E	A	S
D	I	A	B	O	L	L	I	N	E
I	D	I	O	K	A	O	R	T	A
E	G	I	A	Z	O	R	I	N	A
M	A	R	K	U	L	E	O	R	E
O	B	A	R	T	A	T	X	O	L
R	N	I	K	E	N	D	A	B	P
O	Z	K	O	A	O	X	T	O	Z
D	O	L	E	B	A	R	H	L	E
A	Z	T	A	R	O	K	A	R	O

# A K I M I K O

Zorrozki lo



umean medu  
**SEM**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 92 96 • semmodu@hotmail.com

**begitu**  
orria eta abere

**Orrie**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 73

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, 3. 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel. 609 487 830 • 609 200 717

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tf: 94-673-70-87  
Tf: 609-79-40-54

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Tfnoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAI

Pinturas Aratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**NAIARA** Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26





# baserrigintza

- 🍃 Era guztietako etxebizitzaren eraikuntza zein erabarritze eta birgaitze proiektu iraunkor eta jasangarriak egiten doguz, hau guztiau natureagaz bat eginaz.
- 🍃 Baserri-etxe barrien eraikuntzan bereizten gara.
- 🍃 Euskal arkitektura-ondarea erabarritzeaz eta mantentzeaz arduratzen gara.
- 🍃 Etxeen errehabilitazioa egiten dogu jatorrizko izaera mantenduz.

